

Gazte zein nagusi jolastu eta kirola egin

Red adscrita  Euskadi Aktiboa 

Temas

Actividad física.

Descripción

Elgetako herritarrek, osasunerako onuragarriak diren ohiturak hartzea da proiektu honen helburu nagusia, biztanleen osasun-maila hobetzea. Jarduera fisikoa haurtzaroan, gaztaroan, helduaroan eta 65 urtetik gora egitea bermatzea lortu nahi da.

Artekaleko kiroldegi ingurua eta umeen parkea irisgarria denez, bertako bidea, industrialdekoarekin elkartzen da, eta jolasa, aisialdia eta kirola egiteaz gain, ibilaldi osasungarriak egiteko aukera ematen du, lautadan industrialde inguruan, eta nahi izanez gero Aixolako presara edo Larrabiltzearreko bideekin elkartu eta ibilbidea luzatuz. Industrialdean beste jolas parke txiki bat dago, eta baita mahai, aulki eta iturria dituen berdegune bat. Jolas eta kirol zerbitzua eskaintzen dituen gune irisgarria, oinezko ibilbidearen bidez industrialdeko aisialdiko beste gune honekin lotuta dago.

Kirol gunean kanpoko kantxa, skate parkea, bizikletak garbitzeko gunea, iturria, adinekoentzako parkea, bizikleta aparkalekua, kiroldegia (gimnasioa, squasha, sauna, bolatokia eta aldagelak), frontoia, belar gunea mahai eta aulkiekin eta jolas parkea daude. Kiroldegi aurreko jolas-parkea bi gunetan banatuta dago; kantxako harmailen gaineko gunea eta mahai eta aulkiak dauden gunea. Gune zabalenean elementu ezberdinak daude: tirolina, txirristak, eskalatzeko piramide bat, mugimendu enborra, saki-kulunka, txikientzako kulunka, pasabide desberdinak dituen jolas elementu konplexua (zubia, txirrista, tunela ...) eta arezko parke txikia. Harmaila gaineko gunean bi malguki daude eta etxolatxo zaharrak kendu eta bi elementu inklusibo jarriko dira parke egokitu eta irisgarrian.

Ongizatea eta berdintasuna, hezkuntza eta gazteria, eta kirol batzordeak izango dira osasuna sustatzeko jarduketa diseinatu, garatu eta ebaluatzeko garaian koordinatuko dituzten taldeak. Batzordeak irekiak eta publikoak dira, eta beraz, nahi duenak parte hartu dezake.

Contacto

Eider Etxaniz (administraria) / Iraitz Lazkano (alkatea) - 943768022 - eetxaniz@elgeta.eus

Fecha de última actualización del recurso

24/07/2019

Situación actual del recurso

Activa

Localización

Calle ARTEKALE 4 20690 ELGETA Elgeta Gipuzkoa Euskadi España



Página web del proyecto

<https://www.elgeta.eus/>
<https://es-es.facebook.com/elgetakoudala>
<https://twitter.com/elgetakoudala>

Imagen del Recurso



